

FUNTSEZKO BALIABIDEAK:

Gure proiektua aurrera eramateko hainbat baliabide behar ditugu:

Baliabide fisikoak:

Kokapen industrialia eta komertziala erabiliko ditugu; beraz, Donostian leku ezberdinetan dauden bi lokal alokatu beharko ditugu. Bestalde, aulki hauen diseinu grafikoa egiteko ordenagailuak ezinbestekoak izango dira eta azkenik, gure ondasuna egiteko materialak hauek hornitzaile ezberdinei erosi beharko dizkiegu: aulkiak, bateriak eta berogailuak.

Baliabide intelektualak eta giza baliabideak:

Fionaren sormena eta arazoei aurre egiteko bat-batekotasuna, Anek dituen ezagutza informatikoak web orrialde bat diseinatzeko, Aitorrek marketing estrategirako eta Juneren antolaketarako dituzten trebeziak.

Finantza-baliabideak:

Gure finantza-baliabideak bazkideak izango dira. Proiektu hau martxan jartzeko hainbat ikastolarekin harremanetan jarri gara eta hasierako bultzakada emateko Lasaie Zarautz, Santo Tomas Lizeoa eta Oriarte institutuek dirua inbertituko dute.